

Roland gesta kantetan, eleberrietan, teatroan eta zinean

Patri Urkizu

► **To cite this version:**

Patri Urkizu. Roland gesta kantetan, eleberrietan, teatroan eta zinean. Lapurdum, Centre de recherche sur la langue et les textes basques IKER UMR 5478 CNRS, 2008, Jean Haritschelhari omenaldia (21), pp.645-664. artxibo-00250369

HAL Id: artxibo-00250369

<https://artxiker.ccsd.cnrs.fr/artxibo-00250369>

Submitted on 11 Feb 2008

HAL is a multi-disciplinary open access archive for the deposit and dissemination of scientific research documents, whether they are published or not. The documents may come from teaching and research institutions in France or abroad, or from public or private research centers.

L'archive ouverte pluridisciplinaire **HAL**, est destinée au dépôt et à la diffusion de documents scientifiques de niveau recherche, publiés ou non, émanant des établissements d'enseignement et de recherche français ou étrangers, des laboratoires publics ou privés.

JEAN HARITSCHELHAR IRAKASLEARI OMENALDIA

**Patri URKIZU
(UNED)**

Roland gesta kantetan, eleberrietan, teatroan eta zinean

ROLAND pertsonaia historikoa da, baina ezer gutxi dakigu benetan bere bizitzaz. Legendak, aldiz, kontu pila utzi dizkigu. Lehen aipamena Eginhard abadeak IX.mende hasieran ematen digu *Vita Karoli Magni*¹ deitu biografian, non beste ixtorioen artean kontatzen den ere nola euskaldunek Karlomagnoaren gudalosteen atzealdea suntsitu zuten 778. urtearen abuztuaren 15ean eta *Hruodlandus* Britainako mugetan buruzagi zena hila gertatu zen bertan:

In quo proelio Eggihardus regiae mensae praepositus, Anshelmus comes palatii et Hruodlandus Brittannici limitis praefectus cum aliis conpluribus interficiuntur.

Erdi Aroko beste pertsonaia ospetsuen moduan Roland ez da heroi guztiz garbia, enperadorearen legenda beltzak dioskunez honen eta bere ahizparen arteko intzestu harremanen fruitu bailitzateke. Baina batez ere 1100. urte inguruan idatzitako *La Chanson de Roland* poemaren asmakizuna dugu, eta nazio baten kulturarekin, eta espreski Frantziakoarenarekin lotuta dagoen heroia.

Oxford-eko Eskuzkribua deitutako poema, 1170-1180 urtetan idatzi omen zena, alegia, Bodleian liburutegian aurkitutakoa eta lau mila eta bi bertsolerro hamarsilabakoz osatua dena eta Francisque Michelek² argitaratu zuen lehen aldiz 1837an, Parisen

¹ Eginhard, (c. 770-840), *Vita Caroli Magni Imperatoris*. Ed. Halphen. H. Champion, 1923, 28.or.

² Francisque Michel (Lyon 1809- Paris 1887), Bordeleko Unibertsitateko irakaslea, testu zaharren argitaratzailea da batipat, hala nola: *Chronique des ducs de Normandie [Texte imprimé] / par Benoît, trouvère anglo-normand du XIIe siècle, 1836-1844; Collection de documents inédits sur l'histoire de France. Histoire de la guerre de Navarre en 1276 et 1277, 1857; Collection de documents inédits sur l'histoire de France, Gérard de Rossillon, 1856; Le Prince Noir : poème du héraut d'armes Chandos, 1883; Chanson de geste ancienne / Gérard de Rossillon ; publiée en provençal et en français, 1856; Théâtre français au moyen-âge, ..., 1874; La Chanson de Roland et le Roman de Roncevaux. , 1869; Chronique des Abbés de Saint-Ouen de Rouen, publiée pour la première fois d'après un manuscrit du*

Silvestre-ren moldiztegian bere poltsikoko diruz ordainduz, berrehun ale soilik, Ministerioaren ezetzaren ondoren. Thuoldus normadoak idatzia, omen.

Hona bertsolerro hauetan haren heriotza nola kontatzen den:

*Li coms Rodlanz se jut dessoz un pin,
Envers Espagne en at tornet son vis.
De plusors choses a remembrer li prist:
De tantes terres come li ver conquest,
De dolce France, desomes de son ling,
De Charlemagne, son seignor, quil nodrit,
E des Franceis dont il est si cheriz.
Ne puet muder ne plort e ne sospirt;
Mais sei medesme ne vult metre en oblit:
Claimet sa colpe, si priet Dieu mercit:
"Veire paterne, qui onques ne mentis,
Saint Lazaron de mort resurrexis
E Daniël des lions guaresis,
Guaris de mei l'aneme de toz perilz
Por les pechiez que en ma vide fils!"
Son destre guant a Dieu en porofrit,
E de sa main sainz Gabriels l'at pris.
Dessour son braz teneit lo chief enclin:
Jointes ses mains est alez a sa fin.
Dieus li tramist son angele cherubin
E saint Michiel de la mer del peril;
Ensemble od els sainz Gabriels i vint;
L'aneme del comte portent en paredis³.*

XIVe s. de la Bibliothèque du Roi, 1840; Les Voyages merveilleux de Saint Brandan à la recherche du paradis terrestre : légende en vers du XIIe siècle, 1878; Recueil de farces, moralités et sermons joyeux, 1831-1898) eta beste liburu askoren artean honakoen egilea: Histoire des races maudites de la France et de l'Espagne (1847), Recherches sur le commerce pendant le Moyen Âge (1852-1854), Les Écossais en France et les Français en Écosse (1862); Études de philologie comparée sur l'argot (1856); Les écossais en France; Les français en Ecosse, 1862; Histoire du commerce et de la navigation à Bordeaux (1867-1871), Édouard Fournier-ekin batera, Histoire des hôtelleries, cabarets, hôtels garnis (1851-1854); eta Euskal Herriari buruz, Le Pays Basque (1857), eta Le Romancero du Pays Basque, 1859...

³ Gaston Paris & Ernest Langlois, *Chrestomathie du moyen âge*. Hachette, Paris, 1965, 24-25.or.

Alegia, pinu baten pean etzan eta Espainiara begira jarriz gauza zenbaitez oroitzen hasi zela: irabazitako lurraldeez, Frantziaren eztiatz, bere leinuruko gizonez, hezi zuen Xarlemaina bere jaunaz, eta hainbeste maite zuten frantsesez. Negarra eta suspirioak eten ezinik ez zuela bere burua ahortzi nahi ere. Bere hobenez damu eta Jainkoari barkamena eskatu ziola hitzokin: “Jainko benetazkoa, hilen artetik Jundane Lazaro biztu zenuena, eta Daniel lehoietatik aske utzi, arrisku orotarik ene arima eta nire bizitzan egin ditudan bekatuetarik libra ezazu”. Jainkoari bere eskuineko eskunarrua zuzendu ziola, eta Jundane Gabrielelek onartu. Burua besogainean etzan zuela, eskuak bildu eta azken arnasa eman. Jainkoak bere aingeru kerubina Jundane Mikel Itsasperiletarikoak igorri ziola, Jundane Gabriel hurbildu zitzaizela eta elkarrekin kontearen arima paradisura eramane zutela.

Gaston Paris irakasleak komentatzen digunez bitxia da nola ez den ageri Rolanden pentsamenduetan hainbeste maite zuen Aude anderea, zeinek adierazten duen poemaren zatirik zaharretarikoak zela bukaera hau, eta amodio horrek ez zuela lekurik lehen poemetan. Bestalde, aingeruak zaldunaren eskunarrua hartzearen detailea XI. mendeko irudimen batentzat gauzarik goitarrena bezala har zitekeela. Eta Jundane Mikel Itsasperiletarikoak aipatzeak esan nahiko luke egileak ezagutzen zuela VIII. Mendean eraikitako Britainako Monastegi ospetsua.

Girart de Vienne (XII-XIII.m.), *Pèlerinage de Charlemagne à Jerusalem* (XII.m.), *Aspremont* (XIII.m.), *Entrée en Espagne* (XIII. mende bukaera), *La prise de Pampelune* (XIII-XIV.m.), eta *Chronique du pseudo-Turpin* kronikan eta beste poematan Rolanden irudia gero eta fantesiaz beteagoa ageriko zaigu.

Baina ez bakarrik Frantzian Erdi Aroan zehar Roland pertsonaia ospetsu bilakatu zen europar literatura anitzetan, eta horrela aurki daiteke Konrad der Pfaffe-k 1170. urte inguruan *Das Rolanslied* poema epikoa alemanez moldatua 9094 bertsolerro dituen, eta zeinak *Waschoner* delakoak aipatzen dituen eta honela bukatzen den latinez: *tu autem domine, miserere nobis*. Jauna, gutaz urriki!

Karlmeinet germaniarra XIV.ean egile anonimo batek burutua, non kontatzen den Karlosek andere hil batekin izandako amodioa, eta nola apezpiku batek harrieder magiko bat atera zuen andere hilaren ahotik, eta nola bota zuen Akisgrango iturri batera, zein lekurik maitatuena bilakatu zen enperadorearentzat. Gertakizun magiko hau

epistola batean Petrarca erabili zuen eta XVIII. mendean Southeyk beraren gainean erromantze bat moldatu⁴.

Bada ere *Xarlemainaren Saga* bat XIII. mendean Noruegako Haakon IV erregeak moldarazi zuena Frantzian ohi zirenen eran konposatua, non aipatzen den Karlosek bere ahizparekiko izandako intzestu harremana, zeinetarik jaioko zen Roland, eta zazpigarren kapituan Xarlemainaren batailak Espainia eta Orreagan.

Hala nola ingeles zaharreko poema bat XIV. mende bukaeran, *Roland and Vernagu* deituan, besteak beste, non irakur daitekeen honako bertsoa:

*For onour of Roulond
Ponked God, old & Šong,
& Šede a procesioun
Wiþ croice & gomfaynoun
& salue miri song⁵.*

Esan dugunez eta jakina denez, Rolanden inguruko ixtorioak literaturan oso hedatu ziren bai epikan, bai nobelan bai eta teatroan. Heroi miresgarri izatetik poliki-poliki pertsonaia herrikoi batean bilakatzen bide da eta Italian jada Dantek *Divina Commedia*-n aipatzen dizkigu osaba-ilobak:

*Dopo la dolorosa rotta, quando
Carlo Magno perdè la santa gesta,
Non sonò si terribilmente Orlando. (Inferno, canto XXXI, V, 16.)*

Geroago XV. mendean 1460-70 urte inguruan Luigi Pulci-k *Il Morgante Maggiore* poema irrigarrian ageri zaigu, bertso hauetan:

206. bertsoa *E po distese, ridendo, la mana
E rendigli la spada Durlindana.*

...

220. bertsoa *Uno Dio, uno Orlando e una Roma.*

⁴ Elisabeth Frenzel, *Diccionario de Argumentos de la Literatura Universal*. Gredos, Madrid 1976, 79.

⁵ *The Auchileck Manuscript*, ff. 261ra-262Athin stub. The National Library of Scotland.

Obra honek edizio ugari izan zituen eta Italiako plazetan komediagileek eta saltinbankiek errezitatzen zituzten bertako zati handiak. Geroago Boiardok *Orlando innamorato* (1494) plazaratu zuen. Hemen Orlando monstruoekin eta genio gaiztoekin borrokan ageri zaigu. Baina bere arima sinpleak, kastitateak eta ezjakintasanak amodio kontuetan Angelikaren eskuetan jostailu bide bilakatuko da, honen edertasun zerutiarrak barne hotz eta kalkuluz betea estaltzen baitu. Eta idazle ospetsuenetarikoa den Ariostok *Orlando furioso* (1532) moldatu zuen, non amodioak zoratu egiten duen heroia. Orlando Angelicaz maitemindua eta ondorioz zoraturia eredu unibertsala bilakatzen da, bere gizatasunaz deusik galdu gabe. Honetan oinarritu ziren Siziliako txontxongiloak ere.

Ikonografia aldetik arrakasta handia izan zuen eta modan jarri ziren zaldunen arteko borrokak, amodio kortesaren jokoak, dekoratu irudimenez jantziak, eta oihan lilurez beteak. Besteen artean hor daude Jacopo Bertaja eta Girolamo Mirola margolarien *Fleurdelys, Roland, Roger eta Brandimart oihan liluratuak* (1569-1570) koadro famatua; Battista Dossiren *Roland eta Rodomonten dueloa* (1527-30); Jean Boulanger-en *Roland amodioak zoraturik* (1650-52); Arold Böcklin-en *Roland haserre* 1885an, hala nola Albeto Savinioren *Zalduna iturrian*, Ariostoren omenaldi gisa, 1949an burutuak.

Frantzia 1640ean Mairet-ek *Roland* tragedia eman zuen. Lully-k Quinault-en libretoz beste opera sortu 1689an, non alferrik Anjelikaz maitemindua ageri zen, honek Medorri hobesten baitzion. Roland gisa jokatu zuen berrogei urtez jarraian Thévenard kantari ospetsuak eta honen parodia asmatu zuten Panard eta Sticotty-k Pariseko Antzoki italianoan 1744ean. Eta XIX. mendean Mermet operagileak *Roland à Roncevaux*, lau ekitalditan idatzi zuen (Paris, 1864), zeinak halaber beste bertorio satirikoa izan zuen *Les Buffes Parisiennes* antzokian jokatu zena.

Espainiako literaturan XIV. mendean Iruñeako katedralean aurkitu zen 43 bertsoleroko poema, zeini *Cantar de Roncesvalles*, deitu zaion⁶, eta non Karlomagno Rolanden heriotza deitoratzen duen. *Estoria de Bernaldo* jasotzen zuten kroniketan eta erromantzeetan bildu zen Roldanen ixtorioa, non heroi frantsesari beste bat gaztelarra kontrajartzen zen. Ospetsua da, adibidez, erromantze anonimo hura Cervantesek *Don Quijote*-ren bigarren partean jasotzen duena eta honela hasten dena:

Mala la hubisteis, franceses,

⁶ Ramón Menéndez Pidal, “‘Roncesvalles’, un Cantar de gesta del siglo XIII”, *Revista de Filología Española*, Madrid 1917, 105-204.

*La caza de Roncesvalles,
Don Carlos perdió la honra,
Murieron los doces Pares...*

Gaiaren inguruan sortu eleberri eta erromantzeak izan ziren Urrezko Aroako teatroaren iturburu. Hala Lope de Vegak *La Mocedad de Roldán*, *Las mocedades de Bernardo del Carpio* eta beste hamaika antzektokiratu zuen gaiaren inguruan, Calderón de la Barca-k *La puente de Mantible* eta beste bi, Francisco Bances Candamo-k *Orlando furioso*, Lope de Llano-k *Bernardo del Carpio en Francia*, Cubilo de Aragón delakoak 1654ean *El Conde de Saldaña* izenaz, Bernardo de Valbuenak 1674ean, *Bernardo o la victoria de Roncesvalles*, antzerkigile anonimo batek *La Batalla de Roncesvalles*, eta beste, burutu zituzten eta jokarazi.

Badirudi fama Errusiaraino ere iritsi zela edota Siberiaraino non 1831an honako balada aurkitu zuen bidaiari aleman batek:

*Chudo, chudo, o frantsusi,
V'Ronzevalie bilo vam!
Karl Veliki tam lishilsa
Luchig ritsarei avai⁷.*

Bestalde, XV. mendean, eta justuki 1478. urtean Genèvean argitaratu zen, Adam Steinschaber-en moldiztegian *La conquête du grant roy Charlemagne des Espaignes. Et les vaillances des douze pers de France. Et aussi de Fierabras*⁸, ixtorioa hitz lauz, zeinek izugarritzko arrakasta lortuko zuen.

⁷ Pierre Narbaitz, *Orria ou La bataille de Roncevaux (778)*. Zabal, Bayonne 1978, 145.

⁸ Hans-Erich Keller (ed.), *Jehan Bagnyon, L'Histoire de Charlemagne (parfois dite Roman de Fierabras)*. Droz, Genève, 1992.

Alfred Morinek bere *Catalogue Descriptif de la Bibliothèque Bleue de Troyes (Almanachs exclus)*. Droz, Genève 1974, 1705ean hasita bederatzi edizioen berri ematen digu. Hona baimena C. Malleman-ena eta 1705ekoa duenaren titulua osorik:

LA CONQUESTE / DU GRAND / CHARLEMAGNE / ROY DE FRANCE. / & d'Espagne. / Avec les faits, & gestes des douze pairs de France / & du grand Fierabras, & le Combat fait par / lui contre le petit Olivier qui le vainquit. / Et des trois Frères qui firent les neuf épées, / dont Fiéabras en avoit trois pour combattre / contre ses ennemis, comme verrez ci après. / (Bois 55x78: femmes attaquées) / A TROYES, / Chez JACQUES OUDOT, Imprimeur & / Marchand Libraire, rue du Temple, / Avec Approbation & permission.

Xarlemaineren konkistak kontatzen dituen eta Jean Bagnyon-ek XV. mende bukaeran idatzitako nobela honek hiru parte ditu. Lehenbizikoa (13 kapitulu) Vincent de Beauvais-en *Speculum Historiale*⁹ delakotik aterata dago. Bigarrena (49 kapitulu) *Fierabras*¹⁰ poema frantsesaren prosazko moldaketa da. Eta hirugarrena (21 kapitulu) *Chronique de Turpin*¹¹ deritzan ixtoriotik hartua da.

Fierabras gesta kanta Karlomagnoaren ixtoriak kontatzen dutenen sailekoa da, eta frantses zaharrea 6200 bertso hamabisilabadun baino gehiago baditu, pertsonaiak izan zuen ere eleberri bat okzitaneraz XIII. mendean, eskuzkribu bezala irauin zuena XIX. mendean plazaratua izan zen arte, beste askori gertatu zitzaien bezala.

George Hérelle-k euskal pastoralen eskuzkribuez eginiko katalogoan¹² *Roland ou Les douze paires de France* bezala izendatzen duen obraren zazpi eskuzkribuz mintzo zaigu. Hiru Pariseko Liburutegi Nazionalean daude, bat Bordeleko Herri Liburutegian, eta beste bat Jean Héguiphaleña da, eta hiru Larrieu Doktore jaunarenak. Batzuek XVIII. mende bukaerakoak eta besteak XIX. mendekoak. Aipatzen digu ere nola Alozen 1796an apirilaren 4ean Iraultza garaian antzeztu zen bat.

Hauetako batean gainera, antzerkiari *misterio*¹³ deitzen zaio, hain zuzen.

Jean Saroïhandy irakasleak burutu zuen frantsesez ikerketa interesgarri bat prestatu edizioan zenbait eskuzkribu ezberdin erabiliz¹⁴. Bata Heguiphaleña, bestea Pariseko Liburutegi Nazionalean 138 zenbakiduna, hirugarrena Larrieu doktorearena, zeina 1811ko urrilaren 27an antzeztu zen Onizepian, eta laugarrena Bordeleko

⁹ Vincent de Beauvais (+ 1264), *Speculum Historiale*, *Biblioteca Mundi*-ko IV. tomoa. XV. Mendean frantseratu zuen Jean de Vignay-k.

¹⁰ *Fierabras*. Lyon, P. Maréchal & B. Chaussad, Lyon 1497.

¹¹ *Chronique de Turpin* delakoa edo *De vita et gestis Caroli magni*, testu faltsu bat da Reims-eko artzapezpikua omen zen Turpin delako batek idatzia 800. urte inguruan, eta gesta kanten iturburu izango zena. Baina bilduma nahasi bat besterik ez da, hasieran latinez idatzia XI. Mendean eta geroago, XII. Mendean beste fraide batek frantseseratu.

¹² George Hérelle, *Catalogue sommaire des toutes les pastorales connus à ce jour*. H. Champion, Paris, 1922.

¹³ *Misterio admirableriq / representatu ukhen dugu*. BNP, FCB, MS n° 138, 1029. b.

¹⁴ Jean Saroïhandy (ed.), *La pastorale de Roland. Texte basque établi à l'aide de plusieurs manuscrits. Avant Propos. Traduction Française- Commentaire*. Bayonne, Imprimerie de Courrier, 1927.

Liburutegikoa. Tamalez ez zuen eskuzkribu osoa argitaratu baizik eta eskuzkribu ezberdinak erabiliz 343 bertsoko testu fiktizio bat utzi zigun.

Hala bada, guk hemen Saroihandyren ustez eskuzkribu zaharrenaren, alegia, Pierre d'Arhex¹⁵ larrañetar zapataginak XVIII. mende bukaeraldean idatzi eta 1324 zituen eta egun 1047 bertso gelditzen zaizkion antzerkiaren gainean gogoeta batzuek plazaratuko ditugu.

Kontatzen da, beraz, nola Xarlemaina Iruñeatik igaraitzekoan Zaragozako errege moroaren kontra borrokatzera bertako murrak suntsitu zituen, eta nola Zaragoza setiatu ondoren ezin harturik itzuli beharrean aurkitu zen, eta Pirineoak igaraitzekoan moroek eta euskaldunek bat harturik haren armada desegin zuten bertako triskantzan Roldan hil zelarik.

Esan bezala Bagnyon-ek egin ohi bezala burutu zuen Pierre D'Arhex errejentak XVIII. mendean, Ferragut eta Rolanden arteko borrokari hala nola giristino eta Türken arteko batailei garrantzi handia emanez.

Turpinen Kronikan Ganelon traidorea lau zalditara atxikia eta lotua laurdenkaturik izanen da Pastoralan bezalaxe. Baina bitxia da ikustea nola Kronikan esaldi bat soilik dena bertso mordoska bilakatzen diren.

Bitxia da ere ikustea nola Rolan heriotzaz zauriturik egarri den. Bere anaia Balduenari edateko eskatzen dio ur bila joan dadin eta aurkitzen ez duenez edatekorik kontutan hartuta Durandarte ezpatak birtute handiak dituela harkaitza gainean kolpea ematen duela eta honi ura jariko diola.

Hauxe da, hain zuzen, maiz ageri den iduria, zein gertakizunaren beste gertaerekin batera pintaturik dagoen Chartreseko katedraleko beirategian, eta zeina XIII. mendeko hasierakoa den.

Jean-François Cerquand-ek bildu euskal ipuin eta legenda artean bada bat gertakizun miresgarri hau oroitzen duena ere, eta Katalunia aldean ere Gironako elizbarrutian kontserbatzen dena. San Xarlemainaren Ofizioak, zein urtarrilaren 28an ospatzen zen, honela zioen:

*Ergo rupem ferro fode,
Fontem vivum nobis prode,
Ora prece pia Deum*

¹⁵ Bada beste Bernard Arhex bat XIX. mende erdikoa.

*Eta fac pium nobis eum*¹⁶.

Hona nola jaso zuen Cerquandek leijenda hau XIX.mendean, eta nola ematen duen Anuntzi Aranak grafia egokituz:

... Egün batez etsaiak erramü adar bedera eskietan presentatzen diütüzü bakearen egitera, eta bakea eginik, Charlemagna bere kartielat heltü züzün; batere phentsatü gabe etsaiak jiten zietzü gaina eta sei mila gizon ehaiten diezü. Ordian Arrolanek hartzen dizü Charlemagnak eman ezpata, eta belhar epaile batek belharra muzten dian bezala, egoizten zitizün gizonak, eta etsaiak, oro ehaiten ditizü. Bena hanbeste züzün akhitiü, mun egarriak failitürrik, zühain baten pean beitzaguan ezin bestean. Charlemagna heltzen ziozü eta, ikhusirik haren egarria erraiten diozü:

— Ez dakika hire ezpatak badiela pothere hanitz? Sar zak harpe ahortan eta jalkhiren zaik hur harrokatik.

Arrolanek sartzen dizü ezpata ondoala artino harpen, eta elkhiten ziozü ezpataren zilotik üthürri abundant eta fresko bat. Bena bere egarri handian hur hotz hartarik sobera esan zizün eta han berean lehertü züzün.

Egün ere orano üthürri hura deithürrik düzü Arrolanen üthürria¹⁷.

Kontua da Turpinen kronika edota Orreagako legenda Jundane Jakoberen bide osoan kontatzen zela, Vincent de Beauvais-ek erabili zuela bere *Speculum*-ean XIII. mendean eta gero Jean Bagnyon-ek bermoldatu zuela, honen *Conquêtes...* delakoek izugarrizko arrakasta lortu zutelarik XV eta XVI. mendeetan, eta gero kolporterrak, liburu saltzaileek zabaldurik *Bibliothèque Bleue* delakoaren maiteenetakoa gertatu zela.

Saroihandyren ustez pastoraileak erabili zuen eredia edo begibistako liburua bere moldaketa egiterakoan, gaztelaniaz Nicolás de Piamonte, — hau badirudi seudonimoa dela —, delakoak frantsesetik itzulitakoa izan zen. Liburu hau maiz

¹⁶ Sébastien Ciampi (ed.), *Chronique de Turpin*. Florence, 1822, 97.

¹⁷ Anuntzi Arana (ed.), *Jean François Cerquand, Ipar Euskal Herriko Legenda eta Ipuinak. Basajauna, laminak, Tartaroa...* Txertoa, Donostia, 2. T., 1986, 87.

argitaratu zen (Sevilla, 1528; Barcelona, 1612; Madrid, 1657...; Iruñea 1758; Valladolid, 1765...) eta zenbait detaileren arabera garbi dago Saroihandyren ustea.

Adibidez, *Oliveros* ageri da eta ez *Olivier*, *Zaragoza* ageri da eta ez frantsesezko ale guztiek dakarten *Cesarie*, *Baland* ez da ageri *amiral* gisa baizik *Larmirant* (< *almirante*, gazt.) baizik, etabar.

Bestalde, pastoralan Xarlemainak eta Ganelonek kartetan jokatzeko dute, gaztelaniazko *Historia...*-n bezala, eta hau ez da inolaz ere frantses bertsoetan agertzen.

Ikus dezagun adibide bat. Alegia, konpara dezagun Rolanek eta Ferragus jigitanteak egiten duten borroka frantsesez, gaztelaniaz eta euskaraz:

*...Rolan se vint seoir au près de luy et luy dist: "Je suis tout esbahis de ton fait, comme tu es tant fort et sy terrible qu'on ne te peult blesser ne faire grief au corps ne pour espee ne pour baston ne pour pierres ne aultrement." Le jayant, qui parloit espanil, luy dist: "Je ne puis estre occis sy non par le umbril."*¹⁸

Y Roldán se assentó cabe él y le dixo:

— Mucho estoy maravillado, Ferragús, de tus grandes fuerças y cómo puedes comportar el peso de tus armas.

Y Ferragús le dixo:

*— Sepas que tengo la fuerça de quarenta hombres y allende de desso, no puedo morir de ferida sino por el ombligo*¹⁹.

ROLAN

58 *Espantagarri zitadak hire handitarzuna*
Eta espantagarriago orano armen sorhartarzuna.

FERRAGUS

59 *Jakin ezak badudala berrogei gizunen indarra,*
Eta enizala ihuren lotsa khunbatiala jalkhitera.

¹⁸ Jehan Bagnyon, *L'Histoire de Charlemagne (parfois dite Roman de Fierabras)*. Publiée par Hans-Erich Keler. Droz, Genève, 1992, 195-196.

¹⁹ Nicolás de Piamonte (tr.), *Historia de Carlomagno...* Sevilla, 1528. Ed. Nieves Baranda, op. cit., T. II, 601.

60 *Eztuk posible hatzaman nadin abilitatez baizi,
Ez eta kolpuz hil nadin sabeletik baizi*²⁰.

Eta beste bat gaztelaniaz eta euskaraz:

- *Señor Dios, mi criador y redemptor, hijo de la gloriosa María de Consolación, tú sabes lo que yo he hecho y pensado [...]*

- *¡O, espada de gran valor, la mejor que fue forjada!, gran esfuerzo me davas siempre que te mirava, muchos arneses he despedaçado y muchos yelmos cortado, contigo he muerto grande número de paganos. [...]*

Tomo el cuerno por fazer señal algún christiano si en el monte se oviessse escondido y taño dos vezes [...]

Y llegó aquella boz a oídos de Carlo Magno, que estava dos leguas de aquel lugar, y estava jugando con Ganalón. Y conosció que era Roldán el que tañía, y Ganalón le dixo:

- *Señor, Roldán ha ido de caça y avrá muerto algún osso o puerco, y de plazer tañó su cuerno, que assí lo suele fazer.*

*Y Carlo Magno creyó que sería assí y se estuvo jugando*²¹.

Zein pastoralan honela ageri den:

*Bataila. Marzerius eror hilik. Thiro. Rolan khordokatzetz eror.
Sonu. Xarlemaine eta Ganelon jokian has.*

ROLAN

948 Eskerrak nahi deritzut
Ene Jinkua eman,

²⁰ Roland, 58-60b.

²¹ Nicolas de Piamonte, op. cit., T. II, 610.

Zeren kofesatu nizan,
Igaran astian.

949 O ene Jinko Jauna,
Eta salbazalia
Birjina ganik sorthu zira,
O ene kontsolia,

950 Zure begi pietatusez
So egin izadazu,
Uhuin hunari bezala,
Othoi erran ezadazu.

f.55

Trunpeta eragin eta pot egin ezpatari

951 O ezpata baliusa,
Hire parerik eztuk,
Hanitx arnes azkar,
Hik trenkatu duk.

952 Infidelen odolak,
Hik iradoki dutuk,
Etsaiak hanitxetan
Suspreni erazi dutuk.

953 Helas ene Jinko huna,
Ederra eta emia,
Othoi eman ezadazu,
Egun zure argia.

Berriz trunpeta eragin.

XARLEMAINA

954 Helas ene Jinkua,
Zer berri othe dugu?

Rolanek trunpeta
Tristeki sonatu du.

GANELON

- 955 Gaiza segurra sira,
Ihizera jua direla
Eta zumbait ihize arraro,
Hatzaman ahal diela.
- 956 Basurde edo
Orein zumbait hatzaman die,
Gero boztarioz,
Trunpeta eragin die.
- 957 Dugun kuntuua sira,
Plazer baduzu jokia.
Ingoiti trunpetatzez,
Huna heltzen dira.

Jokha berriz. Somu.

XARLEMAINA

- 958 Joku gaizto deritaka,
Ganelon egiten,
Kokiek baizik ez tie,
Sekula arrafusatzen.
- 959 Hireki orai haboro,
Enuk jokhatu ren
Nun eta berri hunik,
Eztudan jakiten.

GANELON

960 Trankilisa zite sira,
Ni berme jarten nuzu,
Rolanen trunpetotsak oro,
Alagrantziatako dutuzu.

Nabarmen denez badirudi Saroihandyren hipotesiak arrazoi duela, eta Pierre d'Arhexek bistaurrean izan zuen liburutxo gaztelaniazkoa izan zela, zein ez den batere harritzekoa Iruñea gertuago zuenez Akitaniako Tolosa baino.

Roland ospetsua izan zen Frantzia osoan, breizeraz antzerkiratu zen ere eta okzitaneraz *Rencesvals* deitu poema sortu. Halaber Castet herrian 1883an antzeztu zen gaiari buruzko antzerkia.

Euskarazko bertsioan ageri diren satanak, Satan, Jupiter eta Aztarot, ikusleak irrierazteko ezarriak dira, batipat. Noski, gaiztoei aholku gaiztoak ematen dizkiete eta kritikoak zioen bezala satan baino *sautants* dirudite, hots, saltalariak.

Pertsonaiak honela daude banatuak:

Khiristiak : Xarlemaina, Reiner, Patriarka, Rolan, Oliberos, Oger, Beranger, Gideburgoina, Balduena, Ganelon, Nemas, Ebarista, Gerin, Tierri, Rixart.

Türkak : Larmirant, Fierrabras, Floripa, Klarion, Brutto, Ferragus, Sortibran, Galafra, Margariz.

Satanak : Satan, Jupiter, Aztarot.

Hizkerari dagokionez Saroihandyk aztertu zituen eskuzkribu ezberdinetako grafiak, hala nola, besteak beste, maileguok.

Adibidez latinetikakook: *desertu, ifernu, mendekatu, miracuilu, mundu, populu, sacratu, saintu, secula,...*

Gaztelaniatikoak: *artificio, açote, campo, degoilla, desditcha, despedi, dozepare, emperadore, justo, leqhaio, martirio, misterio, moro, pagano, palacio, phegna, pilar, traidore, tropa, verde...* Gure partetik, bertsoaren zenbakia duten beste hauek ere topatu ditugu: *arre burra* (MS 138, b.250), *buska* (< *mosca* b. 153), *ladron* (b-65), *trunko* (b.1017), *truzatu* (b.732)...

Frantsesetik hartuak: *bataila* (antzezoharra turken eta giristinoen arteko gudak adierazteko), *duz* (< *douce*, b. 112), *espiagle* (< *espiègle* < *Eulenspiegel* al., 'bitxi' b.13), *esseia, fizela* (b. 1016), *flateria* (< *flatterie* b. 364), *jenatu* (< *gener* b. 435), *jigot* (< *gigot* b.656), *larde* (b.878), *letera [har]* (antzezoharra), *par la sacre blu* (*bleu*-tik, eta hau *Dieu*-ren ordezkoko eufemismoa), *pillatu* (< *piller* b.154), *plenta, sone*

(antzezoharra musika sarrarazteko), *txerka* (biarneraren *cerca* eta frantsesaren *chercher*-en gurutzatetik sortua), *ziflet* (< giflet, b. 103,)...

Biarneratik: *butiga* (b.304), *deskarati* (< deskarat b.268), *ephantxu* (b.466), *eskerniatu* (b.222), *kohat* (b.356), *pihu*, ...

Hitz berezien artean hor dugu *mairasa* (b.905), mairu anderea adierazteko

Izen propioei dagokionez ageri dira parekatuak adibidez *Orriaga* (b.906) / *Roncesvaille* (b.872), *Rol(l)an* (b. 7...) 46 aldiz ageri da eta *Arrolan* (b.946) behin bakarrik. *Durandala* da ezpataren izena (b.371...). Badira ere zenbait, astolasterretakoak liratekeenak eta erantsi direnak ixtorioan hala nola *Peirotina* (b.27), *P(e)irot* (b. 296), *Rekokilot* (231), *Arieder* (b.234), eta beste.

Azken finean honako ondorioetara iristen da Saroïhandy:

La langue, tout en conservant beaucoup d'archaïsmes, n'a pas laissé de se moderniser et souvent les formes les plus anciennes sont employées à côté des formes les plus récentes. Ce qui montre que le travail d'adaptation ne s'est fait que d'une façon très lente et qu'il est loin d'être complètement achevé. Qui pourrait dire sur combien d'années il a pu s'écheloner? Personne, croyons-nous, ne songerait s'étonner si le hasard permettait d'établir que *la pastorale Roland* est l'une des plus anciennes du répertoire basque et qu'elle a été composée dans la première moitié du XVI^e siècle²².

Euskal antzertiaren etorkia dela eta hemen nire iritzi kontrajarria nahi nuke adierazi Baionan 2004eko azaroaren 18an eta 19an *XVIII. mendea Euskal Herrian letretan eta historian* gaitzat harturik izan ziren Jardunaldietan Beñat Oyharçabal eta Jose Maria Lasagabazter ikerle eta irakasleak aurkeztu zituzten iritziekin. Honakoxea dio Oyharçabalek²³:

La tragédie Sainte Elisabeth de Portugal que nous avons brièvement présentée à partir du manuscrit de 1750 est bien la pièce du répertoire des tragédies populaires traditionnelles la plus ancienne qui soit parvenue jusqu'à nous.

²² Aip. lib., 21.

²³ Beñat Oyharçabal, "Place de Saint Elisabeth de Portugal (1750) dans l'histoire des tragédies traditionnelles en langue basque", LAPURDUM IX, Bayonne 2005, 210.

Ez gaude konforme egiten duen grafien interpretazioarekin, <k>-ri dagokionez, hain zuzen, gure irudiko zaharragoak baitira *Jundane Jakobe Handiaren Tragedia*-n ageri zaizkigunak, hala nola *Jan de Parise*-koak. Hala 1634ko data *Jakoberentzat Hérelle*-k eta Omont-ek onartua zuzena dela uste dugu, eta bai kasu honetan bai eta Oiharçabalek ikertzen duen *Santa Elisabethe*-ren kasuan, eskuzkribuetan ageri diren datak beste kopia zaharrago batenak lirateke, noski, azken honenak garbi baitago aperitifak eta beste gastuen berri ematen duen bigarren folioak dioenez, *Ier aout 1834... 1350, Ier aout 1835... 100...*, hala nola grafiak eta hizkera aztertuz ere XIX. mende hasierakoa dela.

Beraz, gure aldetik esango genuke Pierre d'Arhex larraintarraren *Jan de Paris* eskuzkribua izan daitekeela, agian, antzerki testurik zaharrena (ez bada *Jundane Jakobe*²⁴, Espileren *Ester*²⁵, edo besteren bat) eta beste zenbait bezala (*Jean de Calais, Les Quatre fils Aymon, Roland...*) eleberrietarik antzerki modura egokituak. Eta eskuzkribu zaharrenaren data zehatzarik ematekotan, beste daturik ezean, 1760koa beharko genukeela eman, hots, Oiharçabalek proposatzen duena baino hamar urte beranduagokoa.

Bestalde Lasagabazter²⁶ iragasleak honela argudiatzen du:

Si no hay constancia ninguna de que Gabonetako ikuskizuna se hubiera representado, ni siquiera en Mondragón, de donde era escribano Pedro Ignacio de Barrutia, y si la hay en cambio de la representación de las piezas teatrales de Peñaflores, se puede decir en buena lógica que el teatro vasco sube por primera vez a los escenarios de la mano del Conde.

[...]La única vida estrictamente literaria en el XVIII vasco es la que se desarrolla a través de los Amigos del País, en la Real Sociedad Bascongada y en el Real Seminario de Vergara, y de la que Xavier

²⁴ Patri Urkizu (ed.), *Jundane Jakone Handiaren tragedia*. Errenteriako Udala, 1996.

²⁵ Patri Urkizu, "XVIII. Mendean Jean Espilek zubereraz modatu Jean Racineren *Esther*", LAPURDUM IX, Bayonne 2005, 311-321.

²⁶ Jesús María Lasagabazter, *La Ilustración en la vida literaria vasca del siglo XVIII*. LAPURDUM IX,

María de Munibe, Conde de Peñaflores, es inspirador y protagonista principal a un tiempo.

Badirudi Lasagabazterrek ez duela irakurri duela zenbait urte argitaratu nituen XVIII mendeko astolasterrak²⁷, hala nola beste eskuzkribuak zeinetarik jada hamar ikertu, transkribitu eta laister plazaratzekotan ditudan, hauek argi eta garbi adierazten baitigute bazela Azkoitiko zalduntxoek 1765 inguruan bizi arazten hasi ziren, baina bizitza laburra izan zuena baino antzerti bizitza zaharrago bat²⁸.

Rolandek Zuberoan izan zituen antzezte emanaldiekin artean honako zerrenda bederen osa dezakegu Hérelle-k eman albisteen arabera: 1796 Aloze; 1811 Omizepia Jean Mecol errejentaren zuzendaritzapean; 1849 Guabat; 1872 Liki; 1883 Muskildi; 1887 Arrokiaga...

XIX. mendean ossianismoaren eraginez ez da harrigarri gertatzen bada Euskal Herrian bi kazetari saltsa-maltsari handi, Eugène-François Garay de Monglave eta Agosti Chaho nahastea eta bere hondar alea erromantizismoa sortu pizkunde berrian ezarri nahi izatea.

²⁷ Patri Urkizu, *Zuberoako Irri-Teatroa. Recueil des farces charivariques basques. Préface de Jean Baptiste Orpustan*. Izpegi, Baigorri, 1998.

²⁸ Euskal Herrian izandako antzezemanaldien artean honako zerrenda osa dezakegu bederen. Noski, ez ziren falta Errege-erreginen Gortetan, ez gaztelaniaz ez eta frantsesez burutu antzerkiak, besteak beste honako hauek:

1498, Juan Albretekoa eta Katalina Foix-ekoaren koroatze bestetan egin komediak Iruñean.
1530, Komediak, fartsak eta beste Eleonora erreginaren Baionaratzean.
c. 1565, Jean Etchegaray, *Arzain gorria*, Donibane Garazi.
1565, Trissino / Melin de Saint Gelais, *Sofonisba*. Baiona.
1566, Diego de San Pedro, *Passion de Nuestro señor Jesucristo*, Lesaka.
1568, Anónimo, *Autos sacramentales por la cofradía del Sto Sacramento de la Iglesia de San Vicente de San Sebastián*.
c. 1580, Joanes Larrumbide, *Abraham, Job, Judith, La Josefina*, etc., Oiartzun.
1599, Anonimo, *La conversión y penitencia de la Magdalena*. Erreterria.
1600, Anonimo, *Vida y loas de San Juan*. Erreterria.
1602, Anónimo, *La Pasión y remembranza de Nuestro Señor Jesucristo*, Hondarribia.
1643, Martín Ochoa de Capanaga, *Danzas, comedias y autos sacramentales del Corpus Christi*. Durango....
1660, Pierre Corneille, *El Mentiroso (Le Menteur)* ... eta beste komediak Donibane Lohitzunen.

Eta debekuen artean hona batzuk:

1695, Zuberoako erregelamendua, *on ne fera plus de ccharibaris et cours d'ânes...*
1753, Jean Revol, *Nous déclarons que nous priverons de grâces de L'Église les paroisses où on aura fait de charivaris, cours d'ânes, masquarades, pastorales et autre tumultes*.
1765, Carlos III, *Prohibición de representar Autos Sacramentales*
...

Garay de Monglave (1796-1873) Baionan jaioa, Parisera joan zen bere ikasketak egitera eta hemen poeta eta nobelista batekin ezkondu zen, Julie-Delphine-Octavie De Casso-rekin. Bere biografia eta historia lanak pila dira eta denak aipatzea luzexko joko bailiguke hemen, hona batzu: *Histoire de L'Espagne* (1825), *Histoire du Mexique* (1825), *Conspiration des Jésuites en France* (1825) eta *Histoire de Turquie* (1826). Eta eleberrien artean aipa ditzakegu ere: *Mon Parrain Nicolas* (1823), eta *Octavie, ou la Maîtresse d'un prince* (1825)...

Pariseko *Journal de L'Institut Historique* delakoan 1835ean argitaratu zuen Altabizkarrako Kantua edo *Chant d'Altabiscar* edo akats eta guzti egileak idatzi zuen bezala *Altabiçar*²⁹. Roland hilik gertatu zen Orreagako bataila famatuaz ari zen. Kanta aurkezten zuen artikuluan lehenik euskaldunez mintzo zen, hauen hizkuntzaz eta erabiltzen zituzten abestiez. *Altabiçar* delako kantaren kopia Garat kontearen etxean aurkitu omen zuen, eta honek La-Tour-d'Auvergne famatuari zor omen zion. Hau Iraultza Frantsesaren garaian Donostiako kapitulazioaz arduratu zen 1794ko abuztuaren 5ean, eta zioenez, hiriko kaputxinoen komentuan aurkitua zuen, eta bere ezaugarrien arabera XII edo XIII. mendeetakoak zitekeen, beraz, gertakizunaz lauzpabost mende geroagokoa.

Garbi dago Dominique Joseph Garatek ezin ziola ezezkorik eman 1833an hila baitzen Uztaritzen, eta Théophile Malo Corret de La Tour d'Auvergne, zelten kontuetaz arduratu zen militarrek ere ez, 1800ean zendua zenez. Donostian, aldiz, ez zen kaputxinoen komenturik garai hartan.

Dena den, hasieran idazle eta jakintsu zenbait engainuan erori ziren hala nola Mary Lafon, A. du Mège eta Francisque Michel. Ziria ontzat jo zuten idazle guztien zerrenda eta zango-sartze galantak punduz-pundu salatzen ditu Vinsonek, eta frogatzen nola kanta Parisen konposatua izan zen 1834ean.

Baina Vinsonek³⁰ salaketa egin aurretik, Michelek *ancien popular poetry*, antzinako herri poesiaren mostra bezala kontsideratu zuenean *Gentelman's Magazine*-n 1858an, Anton Abbadiak 1859an errebista berean erantzun zion argi eta garbi testu hura lehenik frantsesez moldatua izan zela hogeita lau urte lehenago eta gero beste batekin euskarara itzulia. Ez zuela euskarak, Europako hizkuntzarik zaharrenetarikoa horrelako asmakizun eta zaharreria faltsuen beharrik. Berehala Michel konturatu zen erruaz,

²⁹ Eugène-François. Garay de Monglave, *Chants nationaux basques et chants nationaux béarnais*. MS Bibliothèque Nationale de Paris, naf, n° 3340, 3342.

³⁰ Julien Vinson, 1884, *Notice Bibliographique sur le folklore basque*. Maisonneuve frères.

idatzitakoa zuzendu zuen, eta aitortu zuen bai *Altabiscarraco cantua* bai eta *Abarcaren cantua* apokrifoa zirela, *are forgeries*.

Iritzi hau zabaldu zuten geroxeago xehetasun guztiak emanaz Bladé historialariak 1866an bere *Dissertation sur les Chants héroïques des basques*, delakoan, Wentworth Webster ipuinbiltzaileak bere *Basque Poetry*³¹ txostentxoan 1879ean eta Vinson hizkuntzalariak 1884ean, bere *Les Chants Historiques Nationaux* izendatu artikuluetan.

Dena den apokriko horrek bazuen ziria sartu ahal izateko zati bat benetazkoa, hau da, zenbakien zerrenda, zein benetan herriak kantatu egin izan duen.

Frantsetik euskarara itzuli zuena Louis Duhalde izan zen. Hau ez zen inoiz haurtzaroan ikasitako euskaraz arduratu. Itzulpena aztertuz gero ikusten da, beraz, aski kaxkarra dela darabilen euskara, eta gainera ez neurri ez eta errimarik gabe dagoela itzulita. Badirudi Duvoisin eta honen lehengusu zen Duhaldek irri aski egin zutela asmakizunen kontura, zein engainarrezak ziren hainbeste ospe eta fama zuten idazle jakintsuak.

Garay de Montglave-k ez zuen aski izan behin ziria sartu nahi izatearekin eta 1852an Villemain Heziketa Publikoko Ministroari bidalitako gutunean zioen, kantua itzulpena, *si remarquable par son élégance et son exactitude*, berea zela. Loreak bere buruari asmakizunarekin batera . Alajaina !

Ministroak agindu zion Euskal Herrira joan zedin eta bertako artxiboetan bila zitzala euskaldunen kanta zaharrak. Monglave-k burutu bidaia honen fruitua igorri zion. Hemeretzi *chants nationaux*, tartean hiru apokriko: *Lelo*, *Altabiçar (sic)* eta *Annibal*-en kantuak. Halaber beste bi kanturen itzulpenak omen zirenak: *Urthubiako alhaba* eta *Domingoren eresia*. Hau 1853ko maiatzaren 9an gertatzen zen. Ministroak abuztuaren batean orijinalak eskatu zizkion, eta orduan bai benetazko itzulpena egin behar izan zuela, zein abuztuaren 12an igorri zion.

XX. mendean 1908an Atharratzen abuztuaren 31an antzeztu zen *Uskaldunak Ibañetan* obra Justin de Mendittek eta Clement d'Andurainek idatzia³². Egileek igande goizetan jokatzera debekatzen zuten (*jakinerazten degu, eztugula utziko hunen jokhatzera behinere igante edo besta goizez*), baina jada ez da pastoral tradizional bat

³¹ Wentworth Webster, 1879, "Basque Poetry", *Basque Legends*. London, 235-276.

³² Zibero, *Uskaldunak Ibañetan. Trajeria hirur phartetan*. Behar da burhagertu bethi Uskaldun! Eskaldun ona kasetaren moldetegian. Bayonan 1906.

modernoak baizik, Pierre Lhandek³³ kritikatzeko duenez, eta non Arrolanen azken hitzak honakoak diren:

(Chutitzera iseiitzen delarik besañoaren gaña, botz flakatu bateki erraiten du plañuz bezala, baratch baratcha:)

Jinko Jauna!... Pharka ebe bekhatiak!...
Adio... Frantzia!... Adio... Charlemaña!...
Adio... ene emazte eta haur maitiak!...
Zier doluz hil da... Arrolan kapitaña!...

Adio ...Durandal!... Hire besarkatzez...
Besarkatzen tiat... maite nutianak!...
Hitan errelikak... dutien saintiez...
Ukhen beza... zelia... ene arimak!...

(Arra-etzaten da, Durandal besarkatzen du, eta besoak haren gañetik khurutchaturik hiltzen da.³⁴)

Menderdi geroago Pierre Larzabek idatzi zuen *Orreaga, pastoralak gisarako ikusgarria*³⁵, zein Roger Idiartek muntatu zuen eta zeinen emailea azkaindar antzeztalde bat izan zen, lehen aldiz emanez Donibane Lohitzunen 1964ean Pazko egunez. Eta non gertakizunez aparte kanta hauek entzun ziren: *Aurtxoa-aurtxoa, izu egin lo...; Zer duk nigarrez, zer duk ain ilun...; Gu gira Euskadiko gazteri berria...; eta Bakearen urtxoa, oi urtxo ezta...* garaiko giro politikoaren isla.

Eugenio Arozenak, Intxixu, Oiartzungo antzeztaldearen zuzendariak 1974-75ean *Orria 778 edo Altabizkarko kantua*³⁶ izeneko antzerkia idatzi eta zuzendu zuen berrogeita zazpi aldiz jokaraziz herri anitzetan.

Halaber Junes Casenavek abadeak ere idatzi zuen *Ibañeta* pastoralak, zeina Garindañen jokatu zen 1978an, eta non honela hiltzen zaigun *Erroldante*:

³³ Pierre Lhande, "Uskaldunak Ibañetan" par Zibero. Euskaldun ona, 1906.

³⁴ *Uskaldunak Ibañetan*, aip. lib., 139.

³⁵ Pierre Larzabal, *Azkaine 1964. Orreaga*. Goiztiri, Baiona, 1964.

³⁶ Eugenio Arozena, *Altabizkarko kanta*. Antzerti zabalkunderako aldizkaria. Euzko Jaurlaritza, 64. alea, Donostia 1983.

317. b. *Ezpata ehaile batez*
 Aldez-alde bulharra joile,
 Haitzarte horietan niz
 Arrunt hedaillo etzanik.

Erroldante hil³⁷.

Zinean Louis Feuillade hasi zen heroia erreibindikatzen *Roland à Roncevaux* (1913) obrarekin baina oso filme mutu laburra izan zen hau, egin zituen beste milatik gorakoak bezalaxe, eta geroago italianoak ohiko zine historikoarekin izan ziren gehien erabili zutenak, hala Pietro Francisci, *Orlando e i Paladini di Francia* (1956) obrarekin, eta Franck Cassenti Klaus Kinski aktore ospetsu, harro eta irudimentsuarekin *La Chanson de Roland* (1978).

Francisci-k zine historikoan sinesten zuen eta obra horretan parte hartu zuten aktoreen artean Rik Bataglia (Orlando), Rosanna Schiaffino-k (Angelica), eta Vittorio Sanipoli... daude.

Aitortu behar da, ordea, Cassentiren filma, Kinskik jokaturiko txarrenetakoa dela. Gaia interesgarri zirudien, baina filmea aspergarriena, anbiziotsuena eta gaizkien burututakoa dugu. Hona gaia.

Komediante talde bat Donejakuerantz doazen erromes batzuekin doa, eta bizi duten miseriaz ahanztearren, *La Chanson de Roland* antzezten die. Kinski antzezleatarik bat da, Klaus izenekoa Roland jokatzeko duena. Gidoia irakurri zuenean Kinskik pentsatu zuen bortizkeriaz eta odolez beterikako bataila epikoak irudikatuko zituela, erdi aroko giroan eta gogoz sartu zen abenturan. Baina errodaian etsipena handia izan zen, Cassentik batailak hurrundik filmatzen baitzituen eta plano batean. Haserretu egin zen benetan Kinski ikustean Cassenti arratsade osoak pasatzen zituela zaldien zangoipurdiak filmatzen. Philippe Setbon-ek esaten digunez³⁸, tamalgarria izan zen Kinskiren genioa horrela galtzea, *Agirre, Jainkoaren kolera*-n zeukan indarra deusetan hondatzea eta filmerik gogaikarriena egitea.

³⁷ Junes Casenave Harigile, *Ibañeta pastorala*. Jakin, Arantzazu, 1978, 287.

³⁸ Philippe Setbon, *Klaus Kinski*. Éditions PAC, Paris, 1979.

Bukatzeko Rolandi buruzko aurkezpen hau ez zaigu gelditzen Francisque Michelek duela mende t'ardi baino gehiago Prosper Mérimée-ri adierazi eta euskaldunek beren ondarearekiko izan duten ezaxolakabekeriaz baina azken urteetan konpontzen bide ari den arren oraindik bete ez den desio hura plazaratzea baizik.

Je n'ai plus, monsieur, qu'un seul vœu à former: c'est que le théâtre basque, déjà amoindri par des pertes inévitables, soit bientôt publié, avec une traduction et des notes, par un homme familiarisé avec les ouvrages analogues que nous a légués le moyen-âge³⁹.

Alegia, galera saihetsezinez jadanik aski pobretua den euskal teatroa lehen baitlehen argitaratua izan dadila behar bezalako aurkezpen, ohar eta ikerketekin, honela bai belaunaldi berriek bai munduko antzerki ikerleek ezagutu ahal dezaten euskal tradizioaren altxorra.

Eta bego amaitzeko artikulua hau seinaturik hemen, Jean Haritschelhar irakasle eta adiskideari nire esker onen eta errespeturik adeitsuenaren adierazpena.

³⁹ Lettre de Francisque Michel à Prosper Mérimée sur les représentations dramatiques dans le Pays Basque (*Athenaeum français*, Paris, 12-XII-1854, 1133-1135 ;27-I-1855, 86-88.).

